


LIBURUKA

2020-2021



2020-2021 ikasturtean, Donostia Kulturako Liburutegi Sareak LIBURUKA proiektuaren baitan Irakurle Gazteak ekimena bultzatuko du.

Irakurle Gazteak egitasmoaren xede nagusia da Donostiako ikastetxeei liburutegietan mailegagarri dauden liburuak eskaintzea. Lehen Hezkuntzako (6- 11 urte) eta DBHko 1. zikloko (12-13 urte) ikasleei zuzenduta dago. Liburutegiek proiektu honetarako hautatuak izan diren liburuak mailegatzeko dizkiete ikastetxeei, bi hilabete t'erdiko epean ikasgeletan irakur ditzaten. Liburu mota desberdinak (albuma, narratiba, poesia, antzerkia, komikia eta ezagutza liburuak) bidaltzen dira, euskaraz nahiz gaztelaniaz idatziak. Mailegu-epea bukatu ondoren, ikasleei gehien gustatu zaizkien liburuak **Liburu dantza** blogean gomendatzen dira.

Donostia Kulturako Liburutegien Sareak irakurketa sustatzeko **LIBURUKA** proiektua abiarazi zuen 2018-2019 ikasturtearen hasieran, hiriko hainbat ikastetxeren parte-hartzearekin. Arrakastatsua izan zenez, 2019-2020 jarraipena izan zuen. Ikasturte horietan lau ekimen garatu dira: Irakurle Gazteak, Motxila Txikia, Areto literarioa eta formakuntza liburuazaintzat.

2020-2021 ikasturte honetan, egoera sanitarioak eskaintza baldintzatu du, baina **Irakurle Gazteak** ekimenak aurrera egingo du.

+ **Info:** haurliburutegia@donostia.eus

LIBURUTEGIAK
BIBLIOTECAS
WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS